



**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Osteguna  
2008-10-02**

VIURTEA 1.523.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)



Euskal Jaiaren aurkezpena egin zuten Arotzenen baserriaren ondoan, herenegun. I. GARCIA

## EUSKAL JAIA ANTOLATU DUTE UDALAK ETA HAINBAT ERAGILEK

**ANOETA** Lehenengo aldiz egingo dute, «baserritarrei babesak eman eta gure nortasuna aldarrikatzeko»; urriaren 12an izango da 4

## II. Aurrera KEren Eguna antolatu dute etzirako, egun osoko ekitaldiekin 7



Hektor Espin eta Aitor Izueta hautetsi independentistak. E. EZEIZA

## Voith-Gorostidi proiektuan «gardentasun eza» salatu dute

**TOLOSA** Ezker abertzaleak esan du «ez dituela herritarren benetako beharrak asetzen» 2

## Errosarioko jaiak izango dituzte Ugarte auzoan asteburu honetan

**AMEZKETA** Ekitaldi ugari gozatu ahalko da, eta tartean berrikuntzak ere prestatu dituzte 6



### Udazkenaren begiak 2008

Basoan ikusitako onddoak, bildutakoak... Atera argazkia eta bidali [webgunea@hitza.info](mailto:webgunea@hitza.info) helbidera, zure izena eta herria zehaztuz.

HITZAn argitaratzeaz gain, argazkiak bidaltzen dituzten guztien artean **asteburu bateko egonaldia zozkatuko da** nekazal etxe batean.

[www.hitza.info](http://www.hitza.info)

Argazkiak bidaltzeko epea: abenduaren 3a.



# Ezker abertzaleak Voith-Gorostidiko proiektuaren «iluntasuna» salatu du

**Hirigintza** » Udalaren jarrera salatu du eta berretsi, ez dituela herritarren bizi baldintza duinak bermatzen.

## ESTI EZEIZA

Azken hilabeteetan, Voith-Gorostidi eremuan egin asmo diren etxebizitzaren inguruko zurrumurru ugari zabaldu dira, eta honekin, herritarren kezka piztu. Hori dela eta, auzi honen aurrean, Tolosako ezker abertzaleak bere iritzia ematea erabaki du.

Duela egun gutxi komunikabide batean proiektuaren inguruko informazioa zabaldu zen. Bertan adierazitakoaren arabera, babesezko etxebizitza egokitu zitzaizkien askok, uko egin zioten eta itxaron zerranda, egun, 160. postura iritsi da. Honen arrazoi nagusietako bat, krisia zela aipatzen zen, baina ezker abertzalekoek argi utzi nahi izan dute, eta beraien ustetan, zioa ondorengoa da: Voith-Gorostidi eremuko garapena ez dela orekatua eta ez dituela herritarren bizi baldintza duinak bermatzen.

## «Udalaren gardentasun falta»

Etxebizitza proiektu honen garapenean, Udalaren, eta bereziki, EAJ-PNV alderdiaren iluntasuna eta informazio gabezia salatu dute ezker abertzalekoek. Honenbestez, «onartezintzat» jotzen dute «etxebizitzarena bezalako gai garrantzitsu bat komunikabide bati egindako filtrazio baten bidez za-



Hektor Espin eta Aitor Izueta hautesi independentistak atzo egindako agerraldian. E. EZEIZA

baltzea, are gehiago, komunikabideetan agertzea horren gustuko dutenean». Hektor Espin hautesi independentistaren esanetan, «honek herritarren ezinegona eta kezka areagotzen du, eta hori, herritarrekiko errespetu falta izugarria da».

«Gardentasun falta» honen aurrean, Jokin Bildarratz alkateari eskatzen diote, «Tolosako Udalak etorkizunean garatuko dituen etxebizitza politikaren berri publikoki azaltzeko». Honekin lotuta, eta «Voith-Gorostidiko arazoak errepika ez daitezkeen», herritarren benetako etxebizitza eskaera ezagutzea ezinbestekoa dela deritzote ezker abertzalekoek. Honetarako, Udal batzorde ireki bat osatzea proposatzen dute, non herritarren

eta herrikerogare ezberdinen parte-hartzea hasieratik bermatuko den.

## «Aurreikuspenak bete dira»

Ezker abertzaleak hasieratik salatu zuen Voith-Gorostidi eremuko proiektuak «ez dituela herritarren benetako beharrak erantzuten», lur jabe eta enpresa eraikitzaile handien espekulazio gogoak bai-zik. Hala, beraien ustetan, datuen garbi adierazten dute, «aurreikuspen guztiak betetzen» ari direla. Hori baieztatze hainbat datu mahairatu zituen Espinek atzo. «319 etxebizitza tasatu eskaintzen dira 600 eskatzaileentzat, eta al-diz, 148 babes ofizialeko bakarrak, milaka eskatzaileentzat». Honen aurrean ondorengo galdera luza-

tzen dute: «zenbateko uko egin dute babes ofizialeko etxebizitzei?». Halaber, ezker abertzalekoen ustetan, «etxebizitza tasatuen kasuan, horrenbeste lagunek uko egiteak adierazten du, «EAJren apustuak porrot egin duela, baita berak zuzendu duen etxebizitza politikak ere». Horren arrazoiak, «herritarren beharrei begiratu beharrean, alderdiaren lagunenei begiratzea» dela deritzote.

## «Herritarren bizi baldintza duinak ez ditu bermatzen»

Udaletxeko nahiz Aldundiko teknikoei, Voith-Gorostidi eremuko proiektuaren inguruan iritzia eman zuten, hau, garatzen hasi aurretik. Bertan, ezker abertzalekoek agertutakoaren arabera, ondo-

rengoa zioen «Voith-Gorostidi eremuko garapena ez dela orekatua eta ez dituela herritarren bizi baldintza duinak bermatzen». Iritzi hau ezker abertzaleak berretsi egiten du eta baieztapen horrekin guztiz bat datoz. «Jendea ez dago prest 40 milioi pezeta ordaintzeko Voith-Gorostidin bizitzeagatik, gune berderik eta ekipamendurik gabe, Udalak eta enpresari egi-ten duten propagandaren gaineratik». Hala, Espinen iritziak, «horrek garbi uzten du batzuek eta besteek herritarrengan dugun sinesgarritasuna».

Bestalde, Udalak eta enpresari proiektuaren inguruko informazioa komunikabide batean

## «Voith-Gorostidiko proiektuak ez ditu herritarren benetako beharrei erantzuten»

apropos filtratu zutela adierazi zuten. «Honekin, Voith-Gorostidi etxebizitza erostera bultzatu nahi dute jendea, Laskorain-goiko etxebizitzaren atzerapenean mehatxatuz», gaineratu zuten. Bestetik, ezker abertzaleak Laskorain-goiko garapena geldiarazi izana salatzen jarraitzen dute. Hau, Voith-Gorostidiren mesedean egin dutela argudiatu. Atzoko agerraldian azaldukoaren arabera, «Udalak eremu horretan lur publiko zabalak ditu eta horrek etxebizitza babestu eskaintza handia egiteko aukera ematen du». Baina hau, hautesi independentisten ustetan, «konpetentzia handiegia izango litzateke alderdiaren laguntzat». Honen aurrean, Laskorain-goiko garapenari lehenbailehen ekiteko exijitu diote Udalari, eta «gardentasun osoz» lan egiteko.

# Sukru Karakusen lanak enkantean, bihar

**Kultura** » SOS Arrazakeria elkarteari laguntzea du helburu; ekitaldiariaren hasieran, Iñigo Agirreren emanaldia izango da.

## ERREDAKZIOA

Sukru Karakus artistaren bilan enkantean jarriko dituzte bihar ilun-zean. SOS Arrazakeria elkarteari laguntzeko asmoz jarri dute mar-txan ekimen hau. Ekitaldia

## Iragarki laburrak

### LANA

■ **Kamarera.** Anoetan esperien-tzia duen kamarera bat behar dugu. Igandeetan jai. Interesatu-ek deitu 650 04 31 39ra.



Aranburu jauregian ikusgai diren bi artelan aterako dira enkantean. I. T.

19:30ean hasiko da, eta Aranburu jauregian izango da.

Ekimen honekin jendea sensibi-lizatu nahi dute beste kultureki-ko. Izan ere, artista turkiarraren esanetan, «geroz eta jende gehiago

dator kanpotik, eta elkarri lagundu egin beharra daukagu bakea nahi baldin badugu».

Baina beste kulturekiko ez ezik, artearekiko ere sensibiltzatu nahi du jendea.

Prezio baxu batetik hasiko da enkantea eta edonork parte hartu ahal izango du. Honenbestez, ber-tan ateratzen den dirua SOS Arra-zakeriarentzat izango da.

## Enkantearen aurretik musika emanaldia

Ekitaldiari hasiera emateko Iñigo Agirre gitarra jotzaileak emanaldia eskainiko du.

Euskal tradizio musikakal aber-rastasan handia du, baina hala ere, gaur egun, ez du halako oihartzu-nik erdietsi gitarra klasikoaren munduan. Horregatik, eta zulo hori betetzeko asmoz, artistak aus-kal melodia horietan oinarritutako kontzertu bat prestatu du. Bertan, besteak beste abesti hauek entzun ahal izango dira: *Maitia nun zira*, *Haurtxo txikia*, *Maritxu...*

Ikerketa-lan honek hainbat mus-i-kari hartu ditu oinarritzat, hala nola, Aita Donostia, Iparragirre,

eta Jose Azpiazua. Horien komposi-zio eta moldaketa lanek ospe han-dia eman baitie.

Obren interpretazioa gitarra klasikoaren bidez egin dago, eta horretarako, bere baliabide guz-tiak erabiltzen dira: punteatzeak, arpegioak eta tremoloak, besteak beste. Halaber, digitazio eta mol-daera berriak gehitu dizkie jato-rrizko partiturei, abesti horien ira-urketa berri bat eskaintzeko hel-buruz.

Iñigo Agirrek goi mailako musi-ka titulua du gitarra klasikoaren espezialitatean Donostiako Goi Mailako Musika Kontserbatorio-an, eta gitarra klasikoak maisurik handienekin ikasi du, hala nola, Brower, David Russel, Eduardo Baranzano... Bere ibilbide oparo-an, joera desberdineko eta gitarra elektrikoak musika modernoko klaseak eskaintzeko Eusko Jaurla-ritzaren onarpena du.

## Laburrak

### Presoen diru laguntzen inguruan batzar irekia

**IBARRA** ■ Ezker abertzaleak herri batzarra egingo du gaur, 19:30ean, Subegi elkartearen Batzarria irekia izango da, eta herritarrak gonbidatu nahi dituzte bertan parte hartzera. Presoen diru aguntzen inguruan jardungo dira.

### Hitanoari buruzko ikastaroa Aitzolen

**TOLOSA** ■ Hitanoaz ikastaroa antolatuko dute Aitzol Udal Euskaltegiak. Ritxi Lizartza itzultzaile, interpretari eta zuzentzaileak emango du ikastaroa, eta bereziki, hika txukun egiten dutenentzat da ikastaroa. 15 orduko ikastaroa izango da, eta urriaren 17an eta 31n, azaroaren 14an eta 28an, eta abenduaren 12an eta 19an, 09:00etatik 11:30era. Izena eman nahi duenak edo ikastaroari buruzko informazio gehiago nahi duenak 943 69 74 53 telefono zenbakira dei dezake. Horretarako azken eguna, urriaren 10a izango da. Ikastaroan parte hartzeko 10 euro ordaindu beharko dira.

### Ikastaro batzuetan izen emateko aukera oraindik

**IBARRA** ■ Ikasturte berrirako antolatutuzten udal tailerretan, oraindik ere lekua dutela hainbatetan azaldu dute. Aretoko dantzak, seviljar erakoak, makilajea eta masajeari ikastaroan, esaterako lekua dute oraindik interesatuek. Ikastaro hauei buruzko argibide gehiago jakin nahi izanez gero, Ibarroko Udaleko kultura sailera, 943 67 03 99 telefono zenbakira, hots egin daitezke.

### Pello Odriozolaren egoera salatzeke elkarretaratzea

**TOLOSA** ■ Gaur Lizardi elkarteak ki-deek Tolosako Plaza Zaharrean elkarretaratzea egingo dute, «hain justu ere, gure elkarteak kide den Pello Odriozola tolosarrak duela hiru hilabete aske egon behar zuen, eta egoera hori salatzeke». Elkarretaratze 19:30ean izango da. Pello Odriozolak 20 urte egin ditu espetxean, eta bere zigor osoa uztaillaren 2an bete zuen, bain a Parrot legea tarteko, espetxean jarraitzen du oraindik.

### Ainhoa Artetak sahararren aldeko kontzertua Ataunen

**TOLOSA** ■ Ainhoa Arteta soprano tolosarrak errezitaldia eskainiko du igande honetan, Ataunen, sahararren alde Mundubat GKE antolatuturiko ekimenean parte hartuz. Tolosarrak Mozart, Bach, Haendel edota Vivaldiren obrez osaturiko egitarau klasiko eskainiko du. Kontzertua San Martin Tours elizan izango da, eta ETBk grabatuko du, eta Gabon egunean emango duela azaldu dute.

# Ekitaldi anitzez beteriko hilabetea dugu aurretik

**Tolosa** ■ 40. Nazioarteko Abesbatza Lehiaketa da nabarmenena, eta baita Berazubiko jaiak, eta San Estebango Kultur Astea.

#### ERREDAKZIOA

Hilabete honetan kultur eskaintza oparoa izango da. Anitza, gainera, eta adin guztiei zuzendutakoa. Izango diren ekitaldi guztien artean, Nazioarteko Abesbatza Lehiaketa nabarmenena da, aurtun, 40. edizioa izango duena. Baina hila-beteko ekitaldi nagusiaz gain, Berazubiko jaiak eta San Esteban auzoko Kultur Astea ere aipatzekoak dira. Eta hauez gain, beti bezela, zinema eskaintza, antzerkiak, ikastaroak eta kontzertuak ere izango dira aukeran, besteak beste.

#### Aranburu jauregia

- **Sukru Karakus.** *Turkesa* pintura erakusketa ikusgai, urriaren 9ra arte.
- **Jose Luis Urdapilleta.** *Fotografia* 5 argazki erakusketa azaroaren 8ra arte.
- **Vanessa Alzate.** Pintura, eskultura, grabatua eta collage-a. Urriaren 17tik azaroaren 15era arte.

#### Kultur Etxea

- **'Makilajea eta azalaren oinarrizko zainketa'.** Kutxak antolatuta, urriaren 8tik azaroaren 5era, asteazkenero, 18:00etatik 20:00etara
- **Barrea.** La risa inteligente elkarteak antolatuta, *La risa: estallido de felicidad* hitzaldia, urriaren 16an.

- **Odol-ematea.** Odol-emaielen hileroko odol ateratzea, urriaren 20an, 18:00etan.
- **Zinema eta Kooperazio Emanaldia 2008.** Mugarik Gabe elkarteak antolatuta, urriaren 20tik 25era.

#### Leidor aretoa

- **'El otro lado'.** Antzerki emanaldia, urriaren 10ean, 20:30ean.
- **Kolas mago harrigarria.** Haur antzerkia, urriaren 11n, 17:00etan.
- **Berto jaialdia.** Maialen Lujanbio, Sustrai Colina, Bixente Gorostidi, Aitor Mendiluze, Jon Maia, Beñat Gaztelumendi, urriaren 12an, 17:30ean.
- **'El Caserio'.** Zarzuela Tolosako Orfeoiak antolatuta. Urriaren 17an entsegu orokorra, 20:30ean, eta 18an emanaldi nagusia, 20:30ean.
- **'Evolution and Love'.** Evolve taldearen musika, antzerki eta dantza ikuskizuna, urriaren 24ean, 20:30ean.
- **Teresa Salgueiro & Lusitania Ensemble.** Kontzertua: La Serena, Mundua Tolosan zikloaren baitan, urriaren 25ean.
- **40. Nazioarteko Abesbatza Lehiaketa.** Tolosako Ekinbide Etxeak antolatuta.
- **Zinema:**
  - **Street dance** (bihar, etzi eta igandean).
  - **Venganza** (etzi eta igandean).
  - **Dejad de quererme** (etzi, igandean eta astelehenean).
  - **El niño con el pijama de rayas** (hilaren 11n, 12an eta 13an).
  - **La isla de Nim** (hilaren 19an).
  - **Los girasoles ciegos** (hilaren 19an eta 20an).

- **Viaje al centro de la tierra** (urriaren 26an).
- **Yo servi al rey de Inglaterra** (urriaren 28an eta 29an).
- **Zine Foruma (ostegunero, 19:15ean eta 21:45ean):**
  - **Funny games** (gaur).
  - **Rios y mareas** (urriaren 9an).
  - **A bout de souffle** (urriaren 16an).
  - **Sueños del desierto** (urriak 23).

#### Besterik

- **Iñigo Agirrenen kontzertua.** Aranburu jauregian, bihar, 19:30ean. Ondoren, Sukru Karakus bi koadrorekin enkantea.
- **Hodeiertz abesbatzaren kontzertua.** Zilarrezko etzeien egitarauaren baitan, etzi, 20:15ean, San Frantzisko elizan. Kontzertuaren ostean, 40. Nazioarteko Abesbatza Lehiaketaren kartela aurkeztuko dute.
- **'Tolosa con todo el alma'.** Kutxak antolatutako ikastaroa, Tolosako historiaren inguruan, urriaren 9tik abenduaren 11ra, ostegunero, 18:00etatik 19:00etara.
- **Berazubiko jaiak.** Urriaren 10etik 12ra.
- **Mikologia erakusketa.** Alpino Uzturre mendi elkartearen 50. urteurreneko ekitaldien barruan, Plazara Zaharrean, goizean zehar.
- **Tolosako Musika Banda.** Zerkausian, urriaren 11n, 19:30ean.
- **Tolosako XXI. Kross Herrikoa.** San Esteban auzo elkarteak antolatuta.
- **San Esteban auzoko XXI. Kultur Astea.** Urriaren 11tik 19ra.
- **Kultura gorraren zine jaialdia zeinu hizkuntzan.** Gainditzen elkarteak antolatuta, Eskolapiotan.



San Esteban auzoan iaz izan zen Kultur Astearen una bat. ESTI EZEIZA

## Itxialdia egingo dute bihar gauetik etzi eguerdira, udaletxean

**Tolosa** ■ Ezker abertzaleak «bizi dugun egoera larria» salatzeke egingo du; giza katea ere egingo dute etzi.

#### ERREDAKZIOA

«Bizi dugun egoera politikoaren aurrean», beste hainbat herritan bezala, Tolosako ezker abertzaleak bihar gauerako itxialdia antolatuko du Tolosako udaletxean. 20:00etan izango da sarrera eta irteera berriz, etzi, 12:00etan. Tolosako ezker abertzaleak, «egoera larri honen aurrean» bere ezadostasuna aurkeztu nahi duten herritarrak ekimen honetan parte har dezaten deitu nahi du. Era berean, etzi, eguerdian Tolosako Plaza Zaharretik 12:00etan abiatuko den giza katean parte hartzeko deialdia egin dute. Bestalde, etzi, arratsaldean Bilbon izango den manifestaziora joateko autobusean izen-ematea ohiko lekuetan egin ahalko da.

## T Telefonoak

### Larrialdia. ((112))

<b>OSASUNA.</b>
<b>Alegialdea.</b> Osasun z.: 943 653212
<b>Anoeta-Alkiza-Hernalde.</b> Medikua: 943 65 23 39
<b>Asteasu.</b> Medikua: 943 692423
<b>Baliarrain.</b> Medikua: 943 889003
<b>Berastegi-Elduain.</b> Medikua: 943 683361
<b>Bidegoian.</b> Medikua: 943 681134
<b>Ibarraldea.</b> Osasun etxea: 943 672411
<b>Ikaztegieta.</b> Medikua: 943 653329
<b>Irura.</b> Osasun zentroa: 943 690720
<b>Leitza.</b> Osasun z.: 948 510800
<b>Orendain.</b> Medikua: 943 655595
<b>Orexa.</b> Medikua: 943 682228
<b>Tolosa.</b>
<b>Anbulatorioa, larrialdia:</b> 943 461111
<b>San Esteban:</b> 943 006800
<b>Gernikako arbolak:</b> 943 006900
<b>Amarozko dispen:</b> 943 672637
<b>Asuncion klinika:</b> 943 675799 - 943 67 53 90 (larrialdia)
<b>DYA:</b> 943 672536
<b>Gurutze Gorria:</b> 943 674888
<b>Villabona.</b> Anbulat.: 943 006970
<b>Zizurkil.</b> Aiztondo zerbu: 943 693930
<b>GARRAIOAK.</b>
<b>Renfe:</b> 902 24 02 02
<b>Donostiako autobusa:</b> 943 361740
<b>Tolosalde bus:</b> 943 650621
<b>Leitzaran autob.</b> : 948 221015
<b>Taxia:</b> 943 670420
<b>Taxia (Leitza):</b> 608 873016
<b>BESTERIK.</b>
<b>Ertzaintza:</b> 943 538820
<b>Tolosa-Udaltzaingoa:</b> 943 675858
<b>Tolargi:</b> 943 650016
<b>Iurramendi egoitza:</b> 943 670325
<b>Tolosa gasa:</b> 943 675320
<b>Alkoholiko anonimoak:</b> 943 248474



Loatzo musika eskolako trikitilariek Euskal Jaiaren aurkezpena alaitu zuten. I. GARCIA

## Baserritarrei babesia eman eta nortasuna adierazteko

**Anoeta** » Urriaren 12rako Euskal Jaia antolatu dute Udalak eta herriko hainbat eragilek, egitarau «zabal eta parte-hartzailearekin».

IMANOL GARCIA

Lehenengo aldiz Anoetan Euskal Jaia antolatu dute. Urriaren 12an izango da jai eguna eta herenegun arratsaldean egin zuten aurkezpena, Arozetxe baserriaren aurrean. Antolatzaileek azaldu dutenez, «aurtengo honetan erronka garrantzitsu modura hartu dugu Anoetako Udalak eta herriko hainbat eragilek Euskal Jaia antolatzea». Egunaren helburua «gure nortasuna adierazteaz gain, bertako eta inguruko nekazariei babesia adieraztea da», diote. Horretarako «egitarau zabal eta parte-hartzaile» osatu dute «non gure kultura, nekazari eta artisauak diren protagonista nagusiak».

Egun hau antolatzeko garaian argi izan zuten herritarrek antola-

### » EGITARAUA

#### Urriak 11, larunbata

■ **17:00.** Sega apustua Argindegi baserriko zelaietan.

#### Urriak 12, igandea

■ **09:45.** Jaiaren aurkezpena, dantzariekin. Ondoren, txistulari eta Loatzo musika eskolako ikasleen kalejira.

■ **10:00-13:00.** Eskualdeko baserriar eta artisauen azoka, dultzainak, Arozetxe baserriaren aurrean.

turiko zerbait izan behar zuela oinarri. «Herrian ditugun eragile eta norbanakoen laguntza eta borondatea ezinbestekoa izan da itxurazko egitarau bat osatzeko», azaldu dute. Jendearen parte-hartze honek «izugarritzko ilusioa eta aldi berean datozen ekintzetarako babesia» adierazten duela diote.

Antolatzaileek herritar guztiak gonbidatzen zituzten, baita inguruko herrietakoak ere, urriaren 12an egingo diren ekintzetan parte hartzeko. Aldi berean deialdia lu-

DBH4ko ikasleek pintxo postua jarriko dute.

■ **12:00.** Herri kirolak umeentzat.

■ **14:00.** Herri bazkaria frontoian: txekor jatea egingo dute. Bazkalostean, herri kantak, Kukuak taldearekin.

■ **18:00.** Iñaki eta Inaxio Perurena harri-jasotzaileen saioa plazan. Jarraian, talogileak eta erromeria Kukuak taldearekin. Tarteka Landatarrak ariko dira.

zatu zuten azokara joan eta bertako produktuak erosteko, «inongo bitartekaririk gabe». Bestalde Euskal Jaian egingo den bazkarirako txartelak herriko taberna guztietan salgai daude eta bihar da azken eguna erosteko. Prezioak, berriz, honako hauek: 20 euro langileen-zabala, 15 euro ikasle, langabetu eta jubilatuentzat eta 10 euro zortzi urtetik beherakoentzat. Egun horretan Anoetara joaten direnei baserriarrez jantzia ager daitezzen eskatu diete antolatzaileek.

## Kilometroetara autobusean joatea gomendatzen du Udalak

**Aduna** » Zubiaren ondoan dagoen autobus geltokira oinez jaistea aholkatzen dute, bertatik autobusak joango baitira festara.

### ERREDAKZIOA

Igandean Kilometroak jaia Irura eta Anoetan izango da. Bertara joateko garraio publikoa bultzatzen ari dira antolakuntzatik eta Adunako Udalak ere berdina gomendatzen du. Adunaren kasuan, autobusez joateko aukera errazagoa dute.

Eskualdetik kanpo joaten direnak agian autoz joan nahiko dute eta horretarako gune batzuk antolatuta dituzte. Gune hauetako bat Adunan jarri dute, etakanpotik datozenei autoak Adunako Ibaiondo eta Urtaki industriguneetan utzia-

zaziko dizkiete, baita Amasa-Villabonako industrigunean ere.

Beraz, Lurralde Buseko autobus bat bueltaka ibiliko da Adunako zubi ondoko autobus geltokitik Kilometroaren guneraino (Emusi enpresaraino). Bakoitzean bete eta hustu egingo da autobusa, eta zuzenean bueltaka ibiliko da. Horrez gain, Lurralde Buseko lineako autobusak ere betiko ordutegian ibiliko dira, goizean goizetik hasita. Kasu honetan Laskibar parean jaitsi beharko dute bidaiariak.

Udalak gomendatzen du, beraz, oinez jaisteko Adunako zubiaren ondoan dagoen autobus-geltokiraino, bertan maiz izango baitira autobusak Kilometroetara joateko eta bueltan etortzeko. Bide batez, udalak animatzen ditu herritarrek parte hartzera eta lanean ariko direnak zorientzen ditu bere ahaleginagatik.

## Gaztetxearen inguruan, ekitaldiak ere asteburuan

### ERREDAKZIOA

Kilometroaren harira, Anoetako Gaztetxean eta inguruan izango den txosnagunean hainbat ekitaldi prestatu dituzte. Ostiralean eta larunbatean kontzertuak izango dira gaztetxean. Igandean, berriz egun osoko egitaraua prestatu dute Gaztetxea eta bere ondoan jarriko dituzten txosnak alaitzeko.

Bihar, hilak 3, 23:00etan kontzertua izango da Gaztetxean Tolosaldeko Lain taldearekin eta Hernialdea eta Berako Morau ta Agotak taldearekin. Etzi, hilak 4, 23:00etatik aurrera ere kontzertuak bi taldeekin: Zaunka bizkai-

tarrak eta Barakaldo eta Bilboko Springfield.

Igandean, Kilometroaren ekitaldi nagusian, 10:00etan txosnak irekiko dituzte. 11:00etan Tolosaldeko In the Kitchen taldearen kontzertua. 12:30ean, triki poteo herrikoiki euskalduna. 15:00etan kontzertua Gaztetxean, Tolosaldeko eta Lizarrako Funtastic Planet taldearekin. 17:00etan, Zarauzko Patxaranga taldearen kalejira eta 19:00etan Tolosaldeko Nekro taldearen kontzertua. Ondoren, Anoetako DJ Bag-en emanaldia. Txosnagunean eta Gaztetxean jatxo eta edateko aukera izango da.

## Julen Zelarain Huelvako espetxera eraman dute

### ERREDAKZIOA

Amnistiaren Aldeko Mugimenduen kontrako auzian espetxeratu zituzten 11 lagunak sakabana-tatu izan dira Espainian zehar. Bakoitza espetxe ezberdin batera eraman dute. Julen Zelarain biltzarreko kidea Huelvako espetxera eraman dute, 1.000 kilometrotara.

### Manifestaziorako autobusa

AAMko hainbat lagunek manifestazio nazionala antolatu dute la-

runbaterako, Bilbon, 17:30ean, Aita Donostia plazatik abiatuta. Manifestazioarekin AAMren aurkako epaia salatuko dute. «Espe-txe politika salatzeagatik, tortura salatzeagatik eta errepresioaren aurka egiteagatik» zigortu dituzte-latu du AAMk.

Villabonatik autobusa aterako da larunbatean Bilbon egingo den manifestaziora joateko. Iratzer tabernan eman dezake izena autobusean joan nahi duenak.

**Kilometroak 2008** Irura

**Betagarri Zea Mays Tapia ta Loturia**

**Poxpolo ta Mokolo DJ Makala Desordutan**

**Onabruak Teilatueta MAK Samar Jone**

**Betizu Xurdirin** Xan magoa + Jon Magin Bertsolariak

**Puzgarriak Potxin eta Patxin Udaberrir dantza taldea**

**Hipo eta Tomax Obrint Pas Mamba Beat Trikiak Che**

**Sudaka Alur dantza taldea Amaior** Lakel Loatzo musika eskola

**Tiontar Isaranga** Zpez Mukaki Ze-songe Txortains Esait (Euskal jokoak) Haur jolasak Tallerrak Graffitiak Jantziak Konpenezinak

**Benta Zaharreko mutiko alaiak**

**eraikitzen** **www.kilometroak.net**



Xabier Ruiz del Portal, Javier Borda, Manuel Beraza eta David Moriarti, prentsaurrekoan. JUAN CARLOS RUIZ/ARGAZKI PRESS

## Galdara bereziak ekoitziko dituen lantegia ireki du Mondragonek

**Ekonomia** » Galdara bereziak dira, etxea eta ura berotu eta elektrizitate ere sortzen baitute sistema konbinatu baten bidez.

### AIZPEA AMAS (BERRIA)

Galdara bereziak ekoitziko dituen lantegia inauguratu zuen herenegun Mondragon Korporazioak Tolosan: Efficient Home Energy (EHE). Galdara horiek mikrosistema konbinatu bat erabiltzen dute, eta horri esker, etxea eta ura berotzeaz gain, elektrizitatea ere ekoizten dute. Lantegi berria joint venture bat da, hau da, bi bazkide ditu, Mondragon Korporazioa eta Zeelanda Berriko Meridian Energy enpresaren Whisper Tech Limited filiala. Bien artean, sei milioi euro inbertitu dituzte proiektuan.

Inaugurazioan izan ziren, besteak beste, Ana Agirre Jaurlaritzako Industria sailburua, Markel Olano Gipuzkoako ahaldu nagusia, Javier Borda EHEko lehendakaria, Manuel Beraza Mondragon Korporazioko lehendakariordea, Jokin Bildarratiz Tolosako alkatea eta David Moriarti Whisper Tech Limitedeko zuzendari exekutiboa.

Bordak azaldu zuenez, WhisperGen deitzen da galdara berria, eta etxeko ohiko galdarak ordezkatzeara espero dute. Ohiko galdaren itxura eta eraginkortasun bera dauka, eta, hura bezala, gasarekin elikatzen da, baina balio erantsi batekin: elektrizitatea sortzen du, bai etxean bertan erabiltzeko edo elektrizitate sare orokorrera eramateko.

Horrez gain, ohiko galdarekin alderatuta, bezero ko eta urteko %20 aurreztu ahal izango da energia, eta tonabat CO2 gutxiago isuru.

### Z Zifrak

- **2009.** Enpresaren lehen urtean 30 pertsona arituko dira lanean, eta ekitaldi osoan 50 galdara egitea, eta 15 milioi euro fakturatzeara espero dute.
- **2011-12.** Lantalea 100-150 pertsonetara handituko dela iragarri dute.
- **2014-2015.** 200 pertsonentzako lana sortuko dela aurreikusten dute. Guztira, 30.000 pieza egitea eta 300 milioi euro fakturatzeara espero dute. Lantegia txiki geratuko balitz hura zabaldu edo beste toki batera joango lirake.

ri, Bordak adierazi zuenez. Horrek Europako Batasunari Kyotoko protokoloa eta energiaren erabilerara murrizteko beste direktiba batzuk betetzeko bidea irekiko diola uste du Xabier Ruiz del Portal EHEko zuzendari gerenteak.

### Helburua, Europako merkatuan sartzea

Esportazioak izango dira proiektuaren diru iturri nagusia, eta Europako merkatuan sartzea dute helburu. Whisper Techek dagoneko 400 galdara instalatu ditu Alemanian, Erresuma Batuan, Frantzia eta Herbehereetan. Inñaki Errezola EHEko salmenta arduradunak adierazi duenez, EHEk bi kontratu lortu ditu, bata Alemanian eta bestea Herbehereetan. Oraindik ez dute Euskal Herrian komertzializatzerik espero, aipatutako herrialdeetan baino energia gutxiago kontsumitzen baita hemen.

Krisigarrian egonda, proiektuaren «garrantzia» azpimarratu dute EHEko kideek. Izan ere, energia eta I+G+B (Ikerketa, Garapena eta Berrikuntza) lotzen dituen proiektua izateaz gain, Euskal Herriko industria indartzeko eta lanpostuak sortzeko balioko du.

**hitza** info

udazken-neguko materiala

**SALGAI**  
Irurako plazan

Harpidedun txartela  
Juan Angel Agirrekoak Hitza  
EHEko erabiltzailea  
Harpidedun kodea: 1029905  
**hitza**

harpidedunentzat prezio bereziak:  
ekarri zure harpidetza txartela!

Heldu, gazte nahiz txikientzat  
zirak, jertseak, elastikoak eta hainbat osagarri.

# Errosarioko jaiak asteburu honetan zehar izango dira

**Ugarte** » Hilaren hirutik bostera bitarte izango dira eta betiko egitarau erakargarriari gauza berriak gehitu dizkiete.

## NEREA URBIZU

Asteburu honen baitan Ugarten festez gozatuko dute, Errosarioko Amaren jaiak, hain zuzen. Bihar hasi eta igandera bitarte izango dira, eta aurten ere egitarau erakargarria prestatu dute festa batzordekoek.

Urtero izaten diren ekitaldiez gain, berriak ere gehitu dituzte: larunbateko ikuskizun bitxia (iaz modeloak ikusi ahal izan zituzten desfilatzen), noski, zein izango den jakin ezin bada ere, baina prestatzen ari direla segurua da. Betiko zahagi ardoa, herri afaria, puzgarriak, zaldi ibilaldiak, Mus txapelketa, hamaiketakoak, trikitixa, herri kirolak, sagardo probaketa eta, nola ez, *Ingurutxoak*, ez dira faltako.

Herri afari bikanean bertsolari gazteak ariko dira: Aitzol Barandiaran, Uxue Alberdi eta Nahikari Gabilondo. Afaloste animatua, beraz, Ugarten espero dutena.

Bihar 20:30ean hasiko dira jaiak, kanpaien hotsekin eta suziriekin, eta ondoren afaria izango da. Trikitilariak eta toka ez dira faltako.

Afarira joateko txartelak lortze-



Harri-jasotzaile handiak hurbiltzen dira urtero Ugarteko festetan. A. OTEZABAL



Ugarteko Ingurutxoak igandean dantzatzen ohi dute. A. OTEZABAL

ko asteartea izan zen azken eguna, eta norbait atzeratuta baldin badabil, Goikoetxearenaekoekin hitz egin beharko luke. Bestalde, Ugar-

teko aurtengo jaietako argazkiak eta bitxikeriak biltzen joango dira, eta [ugartetik.blogspot.com](http://ugartetik.blogspot.com)-en ikusgai izango dira.



UEMAK etorkinak informatu nahi ditu, nora datozen esanez, esaterako. HITZA

## Etorkinei harrera egiteko materiala landu du UEMAK

**Euskara** » Euskal Herrira datozen etorkinek eman beharreko pausoen eta dauzkaten zerbitzuen berri jaso ahal izango dute.

### ERREDAKZIOA

Etorkinei harrera egiteko materiala landu dute UEMAKo udalerrietarako. Abian dago kulturartekotasun programa, eta euskalduntze gunea ere lantzen daude.

Urritik aurrera, Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak etorkinei harrera emateko informazioa jarriko du eskura Mankomunitatearen baitan dauden 55 udalerrietan (Tolosaldean, Alegia, Aduna, Altzo, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Ikaztegieta, Elduain, Gaztelu, Irura, Leaburu-Txarama, Orendain eta Oresan). Eskuorrien bidez, Euskal Herrira datozen etorkinek eman beharreko pausoen eta dauzkaten zerbitzuen berri jasoko dute.

### Etorkinari informazioa eman

Udal bakoitzerako karpetak prestatu ditu UEMAK. Lehenengo eta behin, etorkinei nora etorri diren erakutsiko zaie, Udaletako harre-rako beharginen azalpenekin lagunduta. Ongietorria ematen dien testua bi hizkuntzatan eginda dago, euskaraz eta bigarren hiz-

kuntza batean, errumanieraz, frantsesez, ingelesez, portugesez, arabieraz eta gazteleraz, Ameriketara erabiltzen den gazteleraz, hain zuzen ere. Etorri berriari azaltzen zaio Euskal Herriko berezko hizkuntza euskara dela, eta ikasteko aukerak dituela, horretarako bere ohiturak, hizkuntzak eta kultura alde batera utzi behar izan gabe.

Informazio orokorraren atalean, erroldatzeari eta gizarte zerbitzuei buruzko argibideak ematen zaizkie, eta azken orrialdeak herri bakoitzeko informazio zehatza jasoko dute.

### Pedagogia programa landua

Era berean, UEMAK eta Topaguneak, elkarlanean, kulturartekotasuna bilatzen duen ekitaldi pedagogikoen programa landu dute, ipuin kontaketa, antzerki saio eta antzerki tailerren bidez. Gutxi, gorabehera, 12 ekitaldi osatutako programa da, eta kasu honetan ere etorkinen integrazioa da oinarri. Helburu berak mugituta eta berriro ere Topagunea bidelagun hartuta, euskalduntze prozesuan lagunduko duen gune bat lantzen dihardute.

Aurretik egon izan diren esperientziak kontuan hartuko dituzte, batetik Euskal Herrian bertan Berbalagunen esperientzia, eta bestetik, Kataluñan integrazioarako landu diren beste programa batzuk.

## » EGITARAUA

### Urriak 3, bihar

- **20:30.** Kanpai jotze eta suziriak.
- **21:00.** Herri afaria bertsolarietan: Aitzol Barandiaran, Uxue Alberdi eta Naikari Gabilondo.
- **Ondoren.** Ondoren trikitixa Saioa, Aitziber eta Letxurdioekin.
- **Atsedendian.** Toka leihaketa.

### Urriak 4, etzi

- **11:00.** Gaztetzoen pilota partidak: Zubeldia eta Artola, Amundarain-Zubeldia eta Zabala-Artola, eta bukatzeko, beste binakakoa bat: Zabala-Otamendi eta Belokilribarren.
- **12:30etik 14:00etara**

**eta 15:30etik 19:00etara.** Puzgarriak eta ohe elastikoak.

- **Arratsaldean.** Zaldi ibiliko dira nahi duenak Ugarten zehar ibilaldira egiteko.
- **Ondoren.** Txokolata.
- **16:00.** Ugarteko IX. Mus Txapelketa.
- **09:00.** Zahagi ardoa.
- **10:30.** Ansorregi eta Larrañagarekin trikitixa.
- **Atsedendian.** Ikuskizun bitxia...

### Urriak 5, igandea

- **11:30.** Meza Nagusia.
- **Jarraian.** Txakolin probaketa eta

pintxoak plazan izango dira hurbiltzen denarentzat.

- **Bazkaldu aurretik.** Laja eta Landakandaren trikiti saioa.
- **18:00.** Lau harri-jasotzaile handi: Aimar Irigoien, Joseba Ostolaza, Jose Ramon Iruretagoiena Izeta II.a eta Juan Jose Unanue Goenatxo.
- **Ondoren.** *Ingurutxoak*.
- **20:30.** Sagardo probaketa.
- **Bukaeran.** Guraso Elkarteak zozketatutako txerriaren zenbaki sarritua aterako da.
- **Festen amaiera.** Laja eta eta Landakandaren trikitixa doinuak izango dira azken orduak alaitzen.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

**HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • [tolosaldean@tolosaldecohitzza.info](mailto:tolosaldean@tolosaldecohitzza.info) / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak



laz bezala, Aurrera KEren Egunean, etzi, tirolinan ibiltzeko aukera izango dute txikiak. NEREA URBIZU

## II. Aurrera KEren Eguna ospatuko dute elkarteko bazkide eta herritarrek etzi

**Leitza** » Haurrek 10:00etatik 14:00etara rokodromoa, tirolina eta zaldiak edukiko dituzte euren gozamerako.

### ASIER IMAZ

Aurrera Kirol Elkartearen II. Eguna ospatuko da etzi, larunbatean, Leitza. Hala, Kirol Elkarteak ekitaldi ugari antolatu ditu adin guztiko bazkide eta herritarrei zuzendua.

Jaiari hasera 09:00etan emango diote txistularien Dianarekin eta azken ekitaldia 21:30ean hasiko da.

### Haurrentzat 10:00etatik 14:00etara

Txikiak iragan urtean bezala, beraien txokoa edukiko dute plaza inguruan. Tirolina batetatik jaiste-ko aukera izanen dute 10:00etatik aurrera. Horretaz gain, rokodromoan gora eta beheara nola ibiltzen diren erakusteko tenorea edukiko dute. Azkenik, animaliak gustatzen zaizkionari, zaldiekin jolas egiteko parada edukiko du 14:00ak bitartean.

### Pilota, futbola eta dantza

Aurrera Kirol Elkartearen talde ezberdinek erakustaldiak edo norgehiagokak jokatu dituzte etzi.

11:00etan, pilota eskolako neska palistak plazan jokatu dute partida. Ondoren, Dantza Taldearen

emanaldia ikusteko aukera egongo da. 12:30ean futbol taldearen txanda iritsiko da, izan ere, partida jokatu du Aurrera futbol taldeak Arkiskilen.

### Bazkaria eta poteoa

Elkartean handi bat ezin liteke bazkaririk gabe burutu eta II. Aurrera KEren Egunean, aurrez izena eman duten bazkideek bazkaria egingen dute Karrapen 14:30ean. Bertan, piperrada, salda, zikiroa, gazta eta kafeaz osaturiko menuaz gozatu dute. Bazkide eta hauen ingurukoek, bazkal ostean ingurutxoak burutuko dute.

Elkartean ospakizuna herritarrentzat zabalik egongo da Incansables txarangaren laguntzarekin egingo den poteoan. Lehen zintzur bustitzea 13:00etan izango da. Hasetu ez denak bigarren aukera bat ere edukiko du, ingurutxoaren ostean hain zuzen ere.

Jaiari amaiera emateko eta azken ekitaldi bezala, 21:30ean Aurrera luntxa egingo dute bertara gerturatzen direnek. Elkartearen atarian berriz, musika egongo da, Agerralde gizon orkestrak bertan eskainiko baitu emanaldia.

### Antolatzaileen oharrak

Aurrera Kirol Elkartetik jendeari jaiean parte hartzeko eskatu diete. Horretaz gain, etzi, blusa beltza Aurrera kiurarekin jarrita kalera irtetea animatu dituzte herritarrek.

### » EGITARAUA

#### Urriak 4, etzi

■ **09:00etan.** Diana txistulariekin, Aurrera KEaren Egunari hasiera emateko.

■ **10:00etatik 14:00etara.** Haurrentzat rokodromoa, tirolina eta zaldiak egongo dira herriko plaza inguruan.

■ **11:00etan.** Aurrerako pilota eskolako neska palistak plazan partida jokatu dute.

■ **Ondoren.** Aurrerako dantza taldeak emanaldia eskainiko du plazan.

■ **12:30etan.** Aurrera futbol taldearen partidua Arkiskilen.

■ **13:00etan.** Incansables txarangaga lagun delarik poteoa herrian barna.

■ **14:30etan.** Karrapen Aurrerako bazkideen bazkaria. Menua: piperrada, salda, zikiroa, gazta eta kafea.

■ **Ondoren.** Bazkal osteko bazkideen ingurutxoak.

■ **Ondoren.** Incansables txarangaga lagun delarik poteoa herrian barna.

■ **21:30etan.** Luntxa Aurrera Elkartearen eta festarekin jarraitzeko Agerralde gizon orkestra Aurrerako atarian.

■ **Oharra:** Antolatzaileek, II. Aurrera KEaren Egunean, hau da, etzi, Aurrerako ikurra duen blusa beltzarekin kalera irtetera gonbidatu ditu herritarrek.

## Arriskuan dauden bertako arrazak hizketa gai bihar, 19:00etan

**Leitza** » Liburutegian Betizuen, Nafarroako ponien eta Auritzeko zaldien inguruan hitzaldia egingo dute.

kainiko duten hitzaldian, mahai gainean jartzen dituzten kezka eta argudioak, diapositiben laguntzaz plazaratuko dituzte. Bestalde, aipatu behar da, bi hizlariak erdaraz eskainiko dutela ekitaldia.

### «Gertuko gai interesgarria»

**A. IMAZ**  
Leitzako Udal Liburutegiak arriskuan aurkitzen diren bertako arrazak abereen inguruan hitzaldia antolatu du bihar 19:00etan liburutegian.

Betizuak, Nafarroako poniak eta Auritzeko zaldiak izango dituzte hizpide Satur Napal eta Alberto Perez de Muniainek.

### Hizlari adituak

Satur Napal eta Alberto Perez de Muniaiek bertako arrazako abereen inguruan adituak dira. Ogi-bidea medikuntza eta albataritzara zuzendua duten arren, jadanik hirurik argitaratu dituzte gai hauen inguruan.

Bihar 19:00etan liburutegian es-

Leitza eta Goizueta inguruetan hirurik arraza hauetako hainbat abere aurkitzen dira. Horregatik, antolatzaileen esanetan, «inguru hauetako herritarrentzat hitzaldia interesgarria dela iruditzen zaigu, zenbaitentzat gertuko gaia baita. Horregatik, herritar guztiak gonbita luzatzen diegu».

Abere hauek gaur egun bizi duten egoera, nondik eta noiz sortu ziren, desagertzeko dituzten arriskuak, babesteko hartutako neurriak etab. aztertuko dituzte Napal eta Perez de Muniaiek bihar Liburutegian.

Interesa duenak, bihar 19:00etan hitzordua dauka liburutegian; gai honen gaineko jakinmina piztu edo hasetzeko.



Jaka Navarra edo Nafarroako poniak desagertzeko arriskuan. HITZA


## Laburrak

### Bilboko manifestaziorako autobusa jarri dute

**LEITZA** • Bilbon etzi 17:30ean «salbuespen egoera» salatuzko egingo den manifestazio nazionalera joateko autobusa jarri dute Leitza. Izena emateko epea bihar amaituko da Torrean. Leitzaatik autobusa 14:30ean irtengo da.

### III. Ipuin edo narrazio labur lehiaketa abian

**LEITZA** • Altxadi Kultur Elkarteak III. Ipuin edo narrazio labur lehiaketa antolatu du. 16 urtetik gorako herritarrentzat zuzendua dago eta urriaren 17a baino lehen aurkeztu beharko dira lanak Astiz edo Mai-mur liburudendan.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



15°  
13°

GOIZA EURIA  
ARRATS. EURIA  
BEROENA 16°  
HOTZENA 11°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aitzondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoetalea:** 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarralea:** 687 410 032. ibarralea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialea:** 687 410 034. alegialea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

BERTAKO  
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta  
Leitzaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Musika

■ **Tolosa.** Ertzaintzaren Bandak kontzertua emango du lurramendi Egoitzan, 11:00etatik aurrera.

### Erakusketa

■ **Tolosa.** Jose Luis Urdanpilletaren argazki erakusketa izango da ikusgai, azaroaren 8ra arte Aranburu jauregian.

■ **Tolosa.** Sukru Karakus artista turkiarraren pintura erakusketa Aranburu Jauregian urriaren 9ra arte.

### Deialdiak

■ **Amezketeta.** Bilboko manifestazioa joateko autobusa antolatuta dute: Salbuespen egoera salatze-ko manifestaziora joateko autobuseko txartelak ohiko tabernetan daude. 15:15ean Alegiatik pasako da eta deialdia, Ikaztegieta, Altzo, Alegia, Amezketeta eta Orendaingoei egin diete deia.

■ **Alegia.** Urriaren 19an egingo den II. Barazki eta Animalien Azokarako izen-ematea Kultur Etxean egin daiteke. Beharrezkoa da, egunean bertan zer material beharko den zehaztu ahal izateko.

■ **Tolosa.** Iturriza jubilatutako elkartek (Euskal Herria plazakoa) Iratxera irteera antolatuta du urriaren 30ean. Bazkaria Iratxe hotelean, dantzaldia eta opari zozketa izango da. Izen-ematea, elkartean 34 eurotan (36 eurotan ez bazkide-ek).

■ **Tolosa.** Tolosako Orfeoien hamargarren urteurrenako ospakizunaren baitan, Tolosan eskaini zuen lehen obra plazaratuko dute berriro urriaren 18an Leidor aretoan: Jesus Guridiren *El Caserio*. Sarrerak salgai daude Kutxaren webgunean eta zinemako leihatilan bertan.

### Zinema

■ **Tolosa.** Michael Haneke zuzendariaren *Funny games* filma emango dute Leidor aretan 19:15ean eta 21:45ean, Zine-forumaren barruan.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Azpiroz, L. Amaratz auzoa, 9. 943 675118.

■ **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.

■ **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunkizunik.

## Eresargin izena emateko aukera zabalik

**VILLABONA** ● Eresargi-Txiki eta Eresargi - Tipi abesbatzek bihar ekingo diote ikasturte berriari. Bertan parte hartu nahi dutenek izena emateko aukera gaur bertan izango dute. Horretarako Villabonako Kultur Etxera hurbil daitezke 17:30etatik 19:00etara bitarte. Hala ere, matrikula epea urria osoan zehar zabalik egongo da. Eresargi Tipikoek (5 urtetik 10 urteratar bitarteko txikiak) ostiraletan izango dituzte entseguak eta Eresargi Txikiak, aldiz, (11 urtetik aurrerako gazteak) ostegunetan eta ostiraletan izango dituzte. Matrikulatzeko unean haur edo gaztetxo bakoitzaren ordutegia zehaztuko dutela jakinarazi dute arduradunek. Eresargitik gaztetxo guztiak gonbitea luzatu nahi izan dute «abestien munduan sar daitezen». HITZA

## A Agurrak

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

agurrak

Mesedez,  
ekarri  
argazkia  
bi egun  
lehenago.



PURRITX, PORROT  
eta MARI MOTOTS

DVD berria  
etxeko txikiak  
jolasteko



DVDa  
(posterra opari)

18€



PANPINAK



Panpina bakoitza  
(txapa opari)

20€

Egin eskaria amaitu baino lehen

902-82 02 01 edo harpidetza@hitza.info

adierazi harpidedun kodea

hitza info